

Jakintzaren katedral mundiala

ALBERTO BARANDIARAN.

Humanista guztien ametsa, entziklopediazaleek ezin susma zezaketena: munduko liburutegi nagusien altxorrak, hatz baten distantzian. Klik bakar batekin, gaurtik, Lumiere anaien filmak, X. mendeko txinerazko kaligrafiak, Egiptoko botanika liburu frantsesak, XIX. mendeko egunkari eta aldizkarien irudiak, XVIII. mendeko Brasilgo mapak, AEBetako Independentziaren aitortpena, La Marseillaise ereserkiaren XIX. mendeko grabazioak, dena jarrita dago www.wdl.org webgunean, AEBetako Kongresuaren Liburutegiak sustatu eta Unescok eta beste erakunde publiko eta pribatu askok lagundu duten ekimenari esker.

Orain, hogeita hamar bat erakunderen liburutegi eta artxiboren milaka funts ageri dira aipatu helbidean, doan eta libre kontsultagai. Agiriak utzi dituztenen artean daude Irakeko Artxibo eta Liburutegia, Brasilgo eta Txinako Liburutegiak, John Carter Brown Liburutegia, Errusiako Liburutegia, Frantziako Liburutegia, Egiptoko Artxiboa eta Liburutegia, Yale, Pretoria eta Browneko unibertsitateetako Liburutegiak eta, nola ez, Kongresuaren Liburutegia bera.

Milaka argazki, eskuizkribu, liburu, mapa, irudi, soinu eta grabazio. Oinarria da, oraingoz. Epe luzera begirako egitasmoa da, azaldu du egitasmoaren zuzendari John Van Oudenarenek, eta gure ametsa litzateke kulturen arteko elkar ulertzea bultzatzea.

Askatasun uharteak

Sorreran, AEBetako Kongresuaren Liburutegia dago. James H. Billington hango zuzendariak proposatu zuen, sareko entziklopediarik zabalena sortzeko. Liburutegiak askatasun uharteak eta fanatismoaren kontrako antidotoak dira, nabarmendu zuen egitasmoaren aurkezpenean. Pluraltasunaren aldeko jauregiak dira, eta hor, liburuek, desafio intelektual baketsua egiten diote elkarri.

Gaur egun eskura dauden agiriak ez dira, noski, funts baliotsuenak, lagin txiki bat baino ez. Baina zentro bakoitzak gordetzen duen irla interesgarria osatzen dute.

Irakeko Liburutegiak, esaterako, emakumeentzat argitaratutako lehen aldizkaria jarri du sarean. Layla albistaria 1923an kaleratzen hasi zen, eta zientziak, arte, literatura eta soziologiarekin lotutako gai ugari jorratu zituen. Kolonen Liburutegiak, bestetik, 60ko eta 70eko hamarkadetako 77 erretratu eskaini ditu egitasmorako. Liburutegi horrek ia 45.000 argazki gordetzen ditu Ameriketako ohiturak eta folkloreari buruzkoak.

Errusiako Estatuaren Liburutegiak Novosibirsk eskualde siberiarraren mapak, lorpen industrial eta kulturei buruzko afitxak eta Vladimir Ilitx Ulianov Lenin buruzagiari buruzko atal ugari utzi ditu. Txinako Liburutegiak, esaterako, munduaren sorrerari buruzko Yao Liburuetako altxorak eskaintzen ditu. Testu elebiduna da, txineraz eta dongbreaz. Alfabeto horretan, mendealdeko naxi herriak haren jakinduriarekin lotutako ezagutzak idatzi zituen.

Frantziako Liburutegiak, besteak beste, Sarah Bernhardt aktore frantsesaren inguruko hamar posta txartel eskegi ditu. Puzzle bat da, eta aktoreak egindako antzezlan ezagunenen irudiak erakusten ditu. Alexandriako Liburutegiak (Egipto), esaterako, Napoleonen aginduz hainbat zientzilari eta adituk egin zuten entziklopediaren hainbat atal eskaintzen ditu.

Bitxikeria bat. Webguneak bilaketa sistema eskaintzen du, eta basque sartu eta artikulu bakar bat ageri da: AEBetako Kongresuaren Liburutegian dagoen agiri bat da, Acarete du Biscay izeneko esploratzaile baten bidaia liburua. Hego Amerikako Rio de la Plata ibaian barna XVII. mendean egina, 1969an argitaratu zuten. Entziklopediak agiriari egiten dion sarrera horrela hasten da. Acarete du Biscay frantsesa zen, jatorriz euskalduna beharbada, oso ezezaguna.